


Ur-igela, bizkorra bezain zaratatsua

Migel Mari Elosegi*



Eta putzu, urmael, eta ibaiak dira, hain zuzen ere, gure jauzilari trebe honen habitat tipikoa. Leku heze hauetan, talde zaratatsuak osatzen ditu ur-igelak (*Rana ridibunda* izenekoak). Tamainaz, Europan dagoen bertako igel handiena dugu eta normalean 7-10 cm-ko luzera badu ere, askotan 15 cm-raino hel daiteke, 130 gramoko pisua ere izanik. Burua, luzea baino pixka bat zabalagoa eta mutur zorrotza izaten ditu. Oso nabarmenak dira, bestalde, buruaren gainaldean eta bata bestearengandik hurbil dituen bi begiak. Hauetan begi-nini horizontala eta iris arre-horiska ikus daitezke, eta buruan, zertxobait atzerago, erraz bereizten diren tinpano biribil handiak ditu. Igel gorriek eta zuhaitz-igelek ez bezala, ur-igelak ez du orban ilun tenporalik tinpanoaren gainean. Ur-igelaren atzeko hankak jauzi ikusgarriak egiteko tresna indartsuak dira eta muturrean dituzten bost behatzak, igeriketara lagungarri den mintz batez loturik daude. Barneko hatzaren alde dortsolateralean, beste igel ber-

FITXA TEKNIKOA

Ur-igela

Espezia:	<i>Rana ridibunda</i>
Familia:	ranidoak
Ordena:	anuruak
Klasea:	anfiboak


Plasta!! Oso-oso bertan izan den arren, ez dut ongi ikusterik izan eta berehala ezkutatu da uretako lezken artean. Bost pauso gehiago besterik ez eta berriz ere "plasta"!! Oraingoan bai! Igel berde potoloa izan da eta urpe-


ko harrikozko baten azpian bere burua gordetzen ikusi dut. La-sai asko eseri naiz putzu-bazterreko enbor-ipurdi batean, eta minutu-pare bat geroago, urgai-nean flotatzen jarri da, bere begi handiekin niri so.

Igel, apo, eta beste anfibo guztien arbasoek, Deboniko aldian zeuden arrain sarkopterigioetatik eboluzionatu zuten, eta ordurarte ornodunek kolonizatu ez zuten lur lehorrean bizitzen hasi ziren duela 400 milioi urte inguru. Animalia hauek, uretako bizitzatik askatu egin ziren neurri batean, baina beren larruazala beti heze mantendu behar izateaz gain, putzu eta erreketara itzuli behar izaten dute bizitzaren lehen urratsak betetzera.

Euskal Herriko isurialde atlantiarrean, populazio ederrak daude epelxeagoa den mendebaldean (Bizkaia aldean). Ekialdean, ez da hain ugaria, eta Oria ibaiaren inguruan, adibidez, ez da aurkitu. Isurialde mediterraniarrean, aldiz, oso ugaria da.

M.M. Elosegi





M.M. Elosegi



Igelari ibai-bazterrean eguzkia hartzea eta landaredia dagoen lekuetan bizitzea gustatzen zaio.

deetatik bereizten duen maskur txikia izaten du. Aurreko hanka motzek, berriz, lau hatz besterik ez dituzte eta arrek araldian, emearekin lotzen laguntzeko maskur itsaskor batzuk dituzte.

Igel dotore honen larrua, bikortsua izaten da normalean, eta bizkarraren bi aldeetan eta atzeko hanketaraino, guruinez beteriko bi lerro ditu bereizgarri gisa. Kolorazioari dagokionez, aldakor samarra dela esan behar da. Normalean, gainalde berdea eta berde-arreska izaten ditu, eta sabelaldea zuriska eta leuna izan ohi da. Gorputz guztian zehar, tamaina ezberdinetakoa orban beltzak ikus daitezke, eta maiz, goitik beherako arrasto berde argia nabarmentzen da bizkarraren erdian.

Gainerako anfibioak bezala, ur-igel heldua haragijalea da eta bere aho zabalari esker, harrapakin handiak irentsi ditzake. Baina ohizko harrapakinak intsektu, molusku, araknido eta zizareak badira ere, ur-igel tripontziak tri-toi, igel, edota arrain txikien neurriko ornodunak jan ditzake, harrapatuz gero.

Anuru bizkor honen ugalketa udaberriko lehen egun eguzkitsua eta epelekin hasten da, eta arrek,

ahoarean bi aldeetan dituzten aho-zorroak puztuz, sekulako zarata ateratzen dute emeak erakarrri eta lurraldeak finkatzeko. Kantuaren poderioz emea erakarrri dutelarik, arra gainean jarriko da eskuetan duen maskur itsaskorrez helduta, anplexu axilar deritzon jarreran. Emeak orduan 5-10.000 arrautza kanporatuko ditu, aldi berean arrak espermioz ernalduko dituelarik.

Arrautza hauek ondora erori eta handik astebetera, 5 mm-ko apaburuak jaioko dira. Hauek branvien bidezko arnasketa duten larba buru-handiak dira eta tenperaturaren arabera, 3-5 hilabete beharko dute metamorfosi izeneko prozesura heltzeko.

Prozesu harrigarri honetan, eta gertaera ikusgarrienak aipatuz, apaburuaren buztana zurgatu eta hankak garatu egingo dira. Horrekin batera, beste egitura asko ere, itxuraz eta funtzioz aldatu egiten dira. Arnas sistema branikiala, adibidez, lehorrean arnasteko birikez ordezkatzen da eta liseri-aparatuak ere aldaketa sakonak jasango ditu: zapaburuaren moko-itxurako aho txikia, arraildura zabal bihurtuko da eta hesteak nahikoa elikadura ezberdinera moldatuko zaizkio.

Helduaren itxura lortu ondoren, tamainaz askoz txikiagoa izanik ere, igeltxo berria uretatik atera eta putzuaren inguruko lurraldean bizitzen hasiko da.

Metabolismo poikilotermoak direnez, ez dira beren gorputzaren tenperatura konstante mantentzeko gai, eta horregatik, tenperaturek behera egiten dutenean (azarotik martxo edo apirilaren arte, alegia) letargian egongo dira lokazpean gordeta.

Anuru honen banaketa geografikoari dagokionez, Europako erdi-hegoaldean eta ekialdean bizi da. Iberiar penintsula guztian ikus daiteke, isurialde atlantiarrean oso ugaria ez bada ere. Horixe bera dugu Euskal Herrian, eta lurralde osoan topa badaiteke ere, askoz ugariagoa da isurialde mediterraniarrean.

Ur-igelen populazioek atzerakada nabarmena izan dute azken urteotan, batez ere ezinbestekoak diren habitat hezeak galdu direlako. Horrez gain, zenbait lekutan oraindik ere igelak harrapatu egiten dira (batez ere ugal sasoiak) jateko edo saltzeko. Azkenik, errepidetan zapalduta edota poluzio eta produktu kimikoen bidez pozoituta ere asko hiltzen

M.M. Elosegi



Ur-igela bertako anfibiorik zaratatsuena da. Egunez zein gaez entzun daitezke hauen kanta ozenak.

dira. Hau guztia dela eta, derri-gorrezkoa da habitat ahul hauek babestea eta hiltzeko beste iturriak murriztea, ornogabeen harrapakari ezinobe hauen populazioak hezegune guztietan mantentzeko daitezten.



* Biologoa

